

ERABAKIA, 2022ko IRAILAREN 26koa, UPV/EHUko ERREKTOREARENA, UPV/EHUⁿ IRAKASLEEN ORDEZKAPEN BEHARREI ERANTZUTEN HAU TAGAIAK ZERRENDA BERRIETAN SARTZEKO DEIALDI PUBLIKOA EGITEKO DENA

Otsailaren 25eko 3/2004 Legeak, Euskal Unibertsitate Sistemarenak, honako hau dio 25. artikuluan: "Lanpostuen zerrendetako lanposturen bat hutsik gelditzen bada, bai heriotzaren bat gertatu delako edo beste arrazoiren bat egon delako, bai lizentzia izateagatik zein legean aurreikusitako beste edozein arrazoiengatik norbait kanpoan delako, eta lanpostu hori atxikita dagoen jakintza arloko irakasleek irakaskuntzako premiei erantzun ezin badiete, unibertsitateak ordezkioak kontratatu ahal izango ditu, behar den beste denborarako, aplikatzekoa den lan kontratuarekin bat etorritik, betiere plantillen taxuketa orok eskatzen duen arrazionaltasuna, eraginkortasuna eta eragimena kontuan hartuta."

Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoak 48. artikuluan xedatzen duenez (apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoak emandako idazketa), unibertsitateek lan kontratua egin ahal izango diete lanpostua gordeta izateko eskubidea duten langileen ordezkotzak egingo dituzten irakasle-ikertzaileei, bertan aipatutako modalitatei jarraituta.

Bestalde, aipatu den 3/2004 Legeko 16. artikulua dio unibertsitateko irakasleen eta ikertzaileen kontratazioa lehiaketa publikoz egingo dela, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak errespetatuz.

Otsailaren 15eko 17/2022 Dekretuaren bidez onartutako Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuaren 37. artikulua dio, 27.4 artikuluari lotuta, lanpostuak premiaz eta aldi baterako betetzeko, kontuan hartuko dela Gobernu Kontseiluak onartutakoa eta, edonola ere, ustekabeko egoeretan eskolak ematen direla bermatuko duela, kasuan kasuko lanpostua araztu betetzeko prozesua amaitu arte.

Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak 2022ko martxoaren 31ko bileran onartu zuen UPV/EHUko irakasleen ordezkioen zerrendak osatzeko eta gestionatzeko arautegi berria (2022ko maiatzaren 18ko EHAA), unibertsitateko sailen eskariei eta premiei erantzun dieten ordezkioen zerbitzua kalitatezkoa eta eraginkorra izan dadin.

Horregatik guztiagatik, honako hau

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Deialdiaren helburua

Deialdi honen helburua da bi motatako zerrendak osatzea, lehiaketa sistemaren bidez.

- Doktore titulua daukaten hautagaiek osatutako zerrendak.

-Zerrenda osagarriak, lizentziatu, arkitekto, ingeniari, graduatu edo pareko titulua daukaten hautagaiek osatuak. Bigarren ataleko 2. puntuari aipatzen diren arloetan unibertsitateko diplomatuak, arkitekto teknikoak, ingeniari teknikoak edo pareko titulua dutenak sartu ahal izango dira aldi baterako.

Zerrenda horiek erabiliko dira lan kontratudun bitarteko irakasleak kontratatzeko 2022/2023 eta 2023/2024 ikasturteetan (beste ikasturte batzuetan ere erabili ahal izango dira), sailetan sor daitezkeen irakaskuntza premei erantzuteko, betiere sailak ez badauka, kasuan kasuko jakintza arloan, ahalmenik aldi baterako irakaskuntza bere gain hartzeko eta egoera honakoetako bat bada:

a).- Irakasleak, bere eskubideei jarraituz, lanpostua uzten duenean lanpostua gordeta izateko eskubidea izanda (gaixotasun baja edo lizentzia, amatasuna edo aitatasun baja edo lizentzia, zerbitzu betekizunak, zerbitzu bereziak, lizentzia sabatikoak, eszedentziak, lanaldi murrizketak, sindikatuan lan egiteko liberazioa eta abar) edo irakats betebeharrak murriztuta izatea edo betebeharrak horietatik salbuetsita egotea dakarten kargu akademikoak betetzen egotea. Hori horrela izango da edozein izanda ere irakasleak unibertsitatearekin daukan lotura profesionala, funtzionarioak barne.

b).- Ezustean hutsik geratutako plazen irakaskuntza bete behar denean, unean uneko ikasturtea amaitu arte. Ikasturtea bukatuta, plaza berriz hutsik geratuko da, eta orduan, oro har, plaza eraldatu edo lehiaketarako deia egingo da.

c).- Aparteko kasuetan, eta, betiere, Irakasle-ikertzaileen Plan Zuzendariaren babesean hartutako akordioei jarraituz, irakasle funtzionarioaren edo lan kontratudun irakasle plaza sortu berria hutsik egonik aurrekontuz hornituta dagoenean. Mota horretako plazak aldi baterako beteko dira arauari jarraituz behin betiko bete arte. Horrelakoetan, kontratuaren iraupenari dagokionez, 20/2021 Legea bete beharko da.

Bigarrena.- Baldintzak eta agiriak

UPV/EHU irakasleen ordezkotzak egiteko zerrendan sartu ahal izateko, ondoren aipatzen diren baldintzak bete beharko dira lehiaketan parte hartzeko eskaria egiteko epea amaitu baino lehen; eta behien zerrendan egonda ere, baldintza guztiak bete beharko dira kontratua egingo den datara arte.

1.- BALDINTZA OROKORRAK

1.- Hamasei urte beteta izatea. Nortasun agiria nazioanala aurkeztu beharko da edo, bestela, nazionalitatea egiaztatzen duen agiria (Agiri hau aplikazioko "Derrigorrezko dokumentazioa (Zerrendan sartzeko baldintzak)-N.A.Naren fotokopia" atalera igo behar da).

2.- Zinpeko adierazpena, non hautagaiak ziurtatuko duen ez dela izan aldendua diziplina espedientearen bidez administrazio publikoetatik, eta ez dagoela eginkizun publikoak betetzeko ezgaituta, kontuan izanda, betiere, zehapenen iraungitze data (baldintza hau betetzeko dagokion laukia markatu beharko da eskaria aurkezteko aplikazioan).0}

3.- Unibertsitateko irakasleen zereginak betetzea eragozten duen gaixotasunik edo akats fisikorik ez izatea.

Unibertsitateko irakasleei dagozkien zereginak betetzeko gaitasun funtzioanala izatea.

4.- Lehiaketan parte hartzeko tasak ordaintzea.

Tasa ordainketa pasabidearen bidez ordainduko da, edota eskaria modu telematikoan egitean deskargatu eta inprimatutako ordainagiriaren bidez.

Tasa ordaintzeko erabiliko bada aplikazioak ematen duten ordainagiria, ez da aurkeztu beharko horren kopia, automatikoki erregistratuko baita aplikazioan ordainketa egin dela.

Hauetako ordaindu beharreko diru kopuruak parte hartu nahi den zerrenda bakoitzerako:

.-23,49 euro, doktore, lizentziatu, arkitekto, ingeniari, graduatu edo pareko titulua izatea eskatzen den zerrendetarako.

.-19,58 euro, unibertsitateko diplomatua, arkitekto teknikoa, ingeniari teknikoa edo pareko titulua izatea eskatzen den zerrendetarako.

Lehiaketatik kanpo geratuko dira eskariak aurkezteko epean diru kopuru horiek osorik ordaindu ez dituzten lehiakide guztiak, eta ez da beste eperik zabalduko tasok ordaintzeko edo osatzeko.

5.- Gaztelania hizkuntza ofizialtzat ez daukaten herrialdeetako hautagaiak gaztelaniazko C1 maila egiaztatu beharko dute.

2.- BALDINTZA AKADEMIKOAK

1.- Doktoreen zerrendetan sartzeko doktore titulua izan beharko da, zerrenda bakoitzerako zehaztuko den jakintza arlokoa edo arloetakoa; edo, bestela, titulu horren ordezkotza ziurtagiria, titulua jasotzeko eskubideak ordaindu ondoren ematen dena.

Kontuan izanda arautegiak ez duela murriztailea izan nahi, doktore titulua ez bada hasiera batean zerrendarako zehaztutako jakintza arloetakoa, baina bai kidekotzat har daitekeen arlo batekoa, kasuan kasuko sailak aztertuko du hautagaia onar daitekeen ala ez.

Doktore titulua aplikazioko "Derrigorrezko dokumentazioa (Zerrendan sartzeko baldintzak)- eskatutako titulazioaren fotokopia" atalera igo behar da.

2.- Zerrenda osagarrietan sartzeko, zerrenda bakoitzerako zehaztuko den graduatu, lizentziatu, arkitekto, ingeniari edo pareko titulua izan beharko da; edo, bestela, titulu horren ordezkotza ziurtagiria, titulua jasotzeko eskubideak ordaindu ondoren ematen dena.

Kontuan izanda arautegiak ez duela murriztailea izan nahi, hautagaiaren titulua ez bada hasiera batean zerrendarako zehaztutakoetako bat, baina bai kidekotzat har daitekeena, kasuan kasuko sailak aztertuko du hautagaia onar daitekeen ala ez.

Graduatu, lizentziatu, arkitekto edo ingeniari titulua aplikazioko "Derrigorrezko dokumentazioa (Zerrendan sartzeko baldintzak)-eskotutako titulazioaren fotokopia" atalera igo behar da.

Ondorengo jakintza arloetarako unibertsitateko diplomatua, arkitekto teknikoak, ingeniari teknikoak edo pareko titulua dutenak

sartu ahal izango dira: 0187 Gorputz Adierazpidearen Didaktika; 0189 Musika Adierazpidearen Didaktika; 0193 Plastika Adierazpidearen Didaktika; 0255 Erizaintza; 0413 Fisioterapia; 0813 Gizarte Langintza eta Gizarte Zerbitzuak.

Dena den, sail eta arlo jakin bateko zerrenda osagarrian dagoen hautagairen batek doktore titulua lortzen badu eskariak aurkezteko epea behin bukatuta, titulua aurkeztu ahal izango du eta sail eta arlo bereko doktoreen zerrendan sartu, beti ere doktoreen zerrenda horretan sartzeko, bere kasuan, ezarritako gainontzeko baldintzak betetzen badira. Horrelakoetan, hautagai hori jatorriz zerrenda nagusian zeuden doktoreen atzean egongo da, eta ez da merezimenduen puntuaziorik berrikusiko. Kasu honetan, doktoreen zerrendan sartu ondoren, zerrenda osagarrian egoteari utziko dio.

Zerrendarako eskatzen den titulua atzerrian lortutakoa bada, Espainian homologatuta edo baliokidetuta egon beharko da: ez da nahikoa izango homologazioa eskatu dela egiaztatzen duten agiriak aurkeztea.

Atzerrian lortutako doktorego tituluen baliokidetasuna UPV/EHUn bertan eskatu ahal izango da, horretarako ezarritako prozedurari jarraikiz.

Titulua gradukoa, lizentziatura, arkitektura, ingeniari, unibertsitateko diplomatura, arkitekto teknikoa edo ingeniari teknikoa bada, homologazioa egiaztatzeko Titulu, Baliozkotze eta Homologazioen Zuzendariordetza Nagusiaren kredentziala beharko da, eta ez da nahikoa izango homologazioa eskatu dela egiaztatzen duten agiriak aurkeztea (abenduarien 3ko ECD/2654/2015 Agindua, azaroaren 21eko 967/2014 Errege Dekretua garatzeko eta ezartzeko arauak zehazten dituena).

Era berean, Europako Batasuna osatzen duten herrietako herritarrek elkarteko kide den beste edozein herritan lortu badute titulua, herri horretan emandako titulua onartzen duen Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren Agindua erantsi beharko diote tituluari.

3.- Zerrenda bakoitzean sartzeko eskatu ahal izango diren baldintza bereziak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak (adibidez esperientzia klinikoa, espezialitate medikoa, hizkuntzen jakite maila eta abar). Agiri hauek aplikazioko "Derrigorrezko dokumentazioa (Zerrendan sartzeko baldintzak)-baldintza bereziaren egiaztatzea" atalera igo behar dira.

Hirugarrena.- Eskariak aurkeztea

1.- Irakasleen ordezkotzak egiteko zerrendetan sartzeko lehiaketan parte hartu nahi dutenek eskaria aurkeztu beharko dute, modu telematikoan, helbide honetan:

https://gestion-enplegu.ehu.es/jobsite_g/euskera/generico_login.jsp

Eskari bat aurkeztu beharko da parte hartu nahi den zerrenda bakoitzerako eta bertan honako hauek adierazi beharko dira nahitaez: hautagaiaren datu pertsonalak, helbidea, harremanetarako telefono mugikorra eta helbide elektronikoa.

Interesatuak eskaria aurkeztuta, aplikazioak erregistratu egingo du, eta erregistroko sarreraren zenbakia eta data emango dizkio interesatuari

2.- Lehiaketan parte hartzeko baldintzak bete beharko dira lehiaketan parte hartzeko eskariak aurkezteko epea amaitu baino lehen, kasu hauetan izan ezik: euskara edo hizkuntza ez-ofizialak (ikus beharago zehazten dena) eta zerrenda osagarrian egonik doktore titulua lortzen duten hautagaiak.

Hautagaiak deialdian eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte, bai eta alegatutako merezimenduak egiaztatzen dituzten agiriak ere, euskarri informatikoan. Horretarako, pdf formatuan inportatuko dituzte fitxategiak aplikaziora.

Zerrendetan sartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak aplikazioko "Derrigorrezko dokumentazioa (Zerrendan sartzeko baldintzak)" atalera igo behar dira.

Merezimenduak baloratzeko, beharrezkoa izango da horiek alegatzea eta behar bezala egiaztatzea, kasuan kasuko dokumentazioa igoz aplikazioko ataletara.

3.- Eskaria aurkeztu eta erregistratu ondoren ere agiri berriak igo ahal izango dira aplikaziora, eskariak aurkezteko epea amaitu arte. Eskariak aurkezteko epea bukatu ondoren, ez da beste eperik zabalduko merezimendu gehiago aurkezteko.

4.- Eskariak aurkezteko eta baldintzak zein merezimenduak egiaztatzeko epea **2022ko irailaren 27tik urriaren 17ra artekoa** izango da.

Laugarrena.- Ordezkoak egiteko aukerak

1. Hautagaiak beren-beregi adierazi beharko dituzte beren aukerak, hauetarako:

a) Lanaldi osoko edo partzialeko ordezkoak campus bakoitzerako

Campus bat edo gehiago aukeratu ahal izango ditu, eta lanaldirako aukerak ondokoak izango dira:

- Arduraldi osoa baino ez.
- Arduraldi partziala baino ez.
- Arduraldi osoa zein partziala.

b) Hizkuntzak

Hautagaiak ondoko aukera hauetariko bat, batzuk edo guztiak hautatu ahal izango ditu ordezkoak egiteko:

- Elebiduna (euskara/gaztelania)
- Ez-elebiduna (gaztelania)
- Ingelesa daukana.
- Frantsesa daukana.

b.1) Hizkuntza ofizialen jakite maila egiaztatzea.

Plaza elebidunetarako (gaztelania-euskara), euskaraz irakasteko gaitasun agiria izan beharko da, Euskarako errektoreordeak 2002ko ekainaren 5ean emandako erabakiari jarraituz (uztailaren 11ko EHAA), aurkeztuta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko C1 mailaren pareko titulua (2010eko azaroaren 15eko EHAA), edo apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan adierazitakoari jarraituz (euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuesteko dekretua). Gaitasun hori egiaztatzen duen agiria aplikazioko "Hizkuntzak (hizkuntza eskakizunak)" atalera igo behar da.0}

Hautagaiak euskaraz irakasteko gaitasuna egiaztatu badu baina ez badu aukeratu hizkuntzarik ordezkotzak egiteko, ulertuko da plaza elebidunetan zein ez-elebidunetan aritzeko prest dagoela.

b.2) Hizkuntza ez-ofizialen jakite maila egiaztatzea. Filologietako arloren bateko poltsan sartzeko, irakaskuntza hizkuntza ez-ofizialean emateko denean, kasuan kasuko hizkuntzako C1 maila izan beharko da egiaztatuta Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak, 2010eko ekainaren 24an, onartutako erabakiari jarraituz, horren bidez ofizialak ez diren hizkuntzetan irakaskuntza eskaintzeko egiaztagiria eskuratzeari buruzko araudia onartu baitzen (2010-12-02ko EHAA); erabaki hori eguneratu egin zen Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordeak 2017-05-22an emandako erabakiaren bidez (aplikazioko atala: "Hizkuntzak (hizkuntza eskakizunak)").

Hautagaiak hizkuntza ez-ofizial baten irakasteko gaitasuna egiaztatu badu baina ez badu aukeratu hizkuntzarik ordezkotzak egiteko, ulertuko da plaza ez-elebidunetan zein egiaztatutako hizkuntza ez-ofizialeako plazetan aritzeko prest dagoela.

b.3) Hautagaiak ez badu egiaztatu euskaraz irakasteko gaitasuna, ezta ere hizkuntza ez-ofizial batean irakasteko gaitasuna, plaza ez-elebidunetan baino ezingo ditu eman eskolak.

Dena dela, eskariak aurkezteko epea amaitu ondoren hautagaien batek egiaztatzen badu Deialdi eta Lehiaketan Atalean baduela euskaraz edo hizkuntza ez-ofizial batean irakasteko gaitasuna, plaza elebidunetan edo hizkuntza ez-ofizialeko plazetan (frantsesa eta/edo ingelesa) ordezkotzak egitea aukeratu ahal izango du une horretatik aurrera.

2. Lan poltsako merezimenduak eguneratzen ez diren bitartean, zerrendako kideek ezin izango dituzte aldatu aukerak, campusari, arduraldiari eta hizkuntzari dagokionez. Salbuespen bakarrak hizkuntzaren jakite mailari (euskara zein hizkuntza ez-ofiziala) eta doktore tituluari dagozkienak izango dira, gorago esan bezala lehiaketan parte hartzeko eskariak aurkeztu ondoren ere egiaztatu ahal izango baitira.

Bosgarrena.- Merezimenduak egiaztatzea

Hautagaiak aurkeztutako merezimenduak arautegiko 4. artikuluan aipatzen diren epaimahaiek barematuko dituzte.

Azpiatal bakoitzean, laneko esperientziaren azpiataletan izan ezik, gehienez bost merezimendu hartuko dira kontuan.

1.- Irakaskuntzako esperientzia egiaztatzea

Irakaskuntzako esperientzia, oro har, honela egiaztatuko da:

- Euskal Herriko Unibertsitatean egindako irakaskuntzako zerbitzuak direnean, ez da beharrezkoa izango horiek egiaztatzea, administrazio honek ofizioz erantsiko baititu, baldin eta hautagaiak eskatzen badu aplikazioaren bidez emandako zerbitzuak ofizioz egiteko. Dena dela, emandako irakasgaiak jasotzen dituen ziurtagiria aurkeztu ahal izango dute hautagaiek.
- Irakaskuntza publikoan egindako zerbitzuak zerbitzu orriaren bidez eta emandako irakasgaiak eta arduraldia jasotzen dituen ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira.
- Irakaskuntza pribatuan egindako zerbitzuak egiaztatzeko lan kontratua eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak emandako ziurtagiria (ikastetxearen -enpresaren- izena eta alta aldia jasoko dituen) aurkeztuko dira. Emandako gaiak zehazten dituen egiaztatzea ere aurkeztu beharko da.
- UPV/EHUko master ofizialetan egindako irakaskuntza lana egiaztatzeko, GAUR aplikazioaren bidez lortutako irakaskuntza egiaztatzea aurkeztuko da.

2.- Lan esperientzia egiaztatzea

Lan esperientzia, oro har, honela egiaztatuko da:

- Beste batzuen konturako lan esperientzia izanez gero, lan kontratuaren kopia eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak emandako ziurtagiria. Enpresaren ziurtagiria ere aurkeztu beharko da, betetako lanpostuak eta zereginak zehaztuta.
- Norbere konturako lan esperientzia izanez gero, egindako jardueren zinpeko aitortpenaren bidez eta dagokion Ogasun Sailak emandako ziurtagiriaren bitartez (jarduera ekonomikoen gaineko zergan izandako alta aldiak jasotzen dituen). Aurrekoaz gain, egindako lanak egiaztatzeko, agiriak aurkeztu beharko dira (BEZ aitortpenak, adibidez).

3.- Izandako beka egiaztatzea

Bekak egiaztatzeko, berriz, beka deialdia egin zuen organoaren ziurtagiria aurkeztu behar da. Ziurtagiri horretan beren-beregi adierazita ageri beharko da noiztik noiz arte izan zuen beka hautagaiak, eta denboraldi horretan etenaldirik egon zen ala ez.

Seigarrena.- Onartuen eta baztertuen behin-behineko eta behin betiko zerrendak

1.- Eskariak aurkezteko epea amaiturik, unibertsitateko errektoreak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratuko du Irakasle-ikertzaileen Ataleko iragarki ohol elektronikoan eta unibertsitatearen webgunean, eta horixe izango da interesatuei horren berri emateko modua. Hamar eguneko epea irekiko da, zerrenda hori webgunean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera, errakuntzak zuzentzeko. Errakuntzak zuzenduko ez dituzten pertsonak prozesutik kanpo geratuko dira betiko. Aipatu den epe horretan erreklamazioa ere aurkeztu ahal izango da behin-behineko zerrendaren kontra eta, behin epea bukatuta, zerrenda behin betikoa izango da.

Hautagai batek erreklamazioa jartzen badu zerrendatik kanpo geratzeko arrazoia izan delako ez duela aurkeztu zerrenda horretarako eskatutako titulua, kasuan kasuko sailak horri buruzko txostena egingo du.

2.- Errakuntzak zuzentzeko agiriak eta erreklamaziorako agiriak, ahal dela, UPV/EHUko erregistro elektronikoaren bidez aurkeztu behar dira edo, bestela, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak (urriaren 2ko BOE) 16.4 artikuluan zehaztutako beste edozein bide erabilita.

Erregistro elektronikoa erabiliz gero, "Jasotzailea" atalean, lehenengo eremuan, "Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetza" jarri behar da, eta bigarrenean, "Deialdi eta Lehiaketa Atala" (U02000368), bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakiak dioenarekin (erabaki horrek onartu egiten ditu interesatuak UPV/EHUrekiko harreman elektronikoetan identifikatzeko eta sinadura elektronikoa erabiltzeko jarraibideak, bai eta erakunde horretan lanean ari diren pertsonak identifikatu eta sinadura elektronikoa erabiltzekoak ere).0}

Era berean, eskaria aurkeztu ahal izango da sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoan eta, ohiz kanpoko

kasuetan, erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan, aurrez aurre.

Erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUren bulegoen zerrenda jendaurrean dago UPV/EHUko ikastegietako idazkaritzetan, Leioako Errektoregoko eraikinean, Bilboko Larrako Etxean, Arabako Campuseko Errektoreordetzan (Gasteiz), eta Ignacio M^a Barriola ikasgelategian (Donostia). Era berean, zerrenda ikusgai dago Interneten: https://www.ehu.eus/eu/web/idazkaritza-nagusia/erregistro-orokorra_ordutegia. Era berean, gune horretan bertan daude ikusgai bulegoen ordutegiak.

Eskaria posta bulegoetan aurkeztuz gero, abenduaren 3ko 1829/1999 Errege Dekretuko 31. artikulua xedatutako moduan aurkeztu behar da. Dekretu horrek posta zerbitzuak arautzen ditu, eta honako hau xedatzen du:

Las solicitudes, escritos y comunicaciones que los ciudadanos o entidades dirijan a los órganos de las Administraciones Públicas, a través del operador al que se le ha encomendado la prestación del servicio postal universal, se presentarán en sobre abierto con objeto de que en la cabecera de la primera hoja del documento que se quiera enviar, se hagan constar, con claridad, el nombre de la oficina y la fecha, el lugar, la hora y el minuto de su admisión. El remitente también podrá exigir que se hagan constar las circunstancias del envío, previa comparación de su identidad con el original, en la primera página de la copia, fotocopia u otro tipo de reproducción del documento principal que se quiera enviar, que deberá aportarse como forma de recibo que acredite la presentación de aquél ante el órgano administrativo competente.

Practicadas las diligencias indicadas, el propio remitente cerrará el sobre, y el empleado formalizará y entregará el resguardo de admisión, cuya matriz archivará en la oficina.

Los envíos aceptados por el operador al que se encomienda la prestación del servicio postal universal, siguiendo las formalidades previstas en este artículo, se considerarán debidamente presentados, a los efectos previstos en el artículo 38 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y su normativa de desarrollo (art. 16 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas).

Errakuntzak zuzentzeko eta erreklamazioak aurkezteko epean ezingo da alegatu eta/edo egiaztatu beste merezimendurik.

3.- Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendaren kontra berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio errektoreari hilabeteko epean edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da zuzenean, bi hilabeteko epean, argitaratzen denetik kontatzen hasita.

Zazpigarrena.- Merezimenduen balorazioa

1.- Hautagaien merezimenduak UPV/EHUko irakasleen ordezkoen zerrendak osatzeko eta gestionatzeko arautegian aipatzen diren epaimahaiek barematuko dituzte (2022ko maiatzaren 18ko EHAA)

Hautagai bakoitzari puntuazioa emango zaio, arautegian zehaztutako baremazioa kontuan hartuta, eta puntuazio handienetik txikienera ordenatuko dira.

2.- Epaimahaiek deialdi honetan beren-beregi adierazita ez dauden gaiak interpretatzeko eta ebazteko ahalmena dute eta, nolana ere, beharrezko ikusten duten aholkularitza teknikoa eska dezakete.

3.- Epaimahaiaren proposamenak unibertsitatearen webgunean argitaratuko dira, eta posta elektronikoz jakinaraziko zaizkie hautagaiei.

4.- Epaimahaiek egindako proposamenen kontra gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio unibertsitateko errektoreari. Horretarako epea hilabetekoa izango da, proposamen horiek webgunean argitaratzen diren egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Dena dela, horrek ez du eragotziko beste edozein motatako errekurtsorik jartzea. Gora jotzeko errekurtsorik jarritz gero, webgunean jakinaraziko da, eta interesatuek hamar eguneko epea izango dute alegazioak aurkezteko.

Zortzigarrena.- Ordezkoak egiteko eskaintzak

1.- Irakasle baten ordezkoa egin behar denean, kasuan kasuko jakintza arlo eta saileko doktoreen zerrenda erabiliko lehenik eta behin. Ordezkoa egiteko ezaugarriak betetzen dituzten hautagaiei deituko zaie unean-unean eskura egongo diren bitarteko telematikoen bidez (SMS, posta elektronikoa, jakinarazpen elektronikoa, telefono finkoa zein mugikorra, edo unean-unean horretarako aukera ematen duten baliabide teknologikoak).

2.- Ordezkotza egiteko eskaintza jaso duten hautagaiek bi egun naturaleko epea izango dute, eskaintzaren jakinarazpena hartzen dutenetik hasita, adierazteko ordezkotza egiteko interesik duten edo uko egin nahi dioten eskaintzari. Oso kasu berezietan, adierazitako epean egiaztatu beharko direnak eta Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetzak aztertu, epea luzatu egin ahal izango da.

Ordezkotza eskainiko zaio doktoreen zerrendan interesa erakutsi eta libre daudenen artetik hurrenkeraren arabera lehenengo dagoen hautagaiari. Inork ez badu interesik erakusten edo ez badago inor libre, ordezkotza esleituko zaio, irizpide berei jarraituz, sail eta arlo bereko zerrenda osagarrian libre eta interesatuta dagoen lehenengo pertsonari.

Ordezkozaren esleipendunak bi egun baliouduneko epea izango du (esleipena jakinarazi eta biharamunetik kontaktzen hasita) kontratua sinatzeko. Epe horretan ez bada kontratua sinatzera agertu, ordezko irakasle izateari uko egin diola ulertuko da eta, ondorioz, zerrendako hurrengoari deituko zaio.

Oso kasu berezietan, batez ere lana eta familia bateratzearekin zerikusia daukatenetan, eta errektoreak hala erabakiko balu, luzatu egin ahal izango da aurreko atalean adierazitako epea.

3.- Unibertsitate honetan ezingo dira izan arduraldi partzialeko bi kontratu aldi berean irakaskuntzako zereginak betetzeko.

Bederatzigarrena.- Zerrendatik kanpo geratzea

Hautagaia zerrenda orotatik guztiz eta behin betiko kanpo geratzeko arrazoi izango dira:

- a) Sinatutako kontratuari uko egitea, arrazoia edozein izanda ere, baina kalterik egiteke horregatik arautegiko 7.2 artikuluan aipatutakoari. Hala ere, arduraldi partzialeko kontratu bati uko eginez gero bat-batean sortutako bateraezintasunagatik, hautagaia ez da geratuko zerrendetatik kanpo.
- b) Eskaintzari uko egitea arautegiko 8. artikuluan adierazitako arrazoiren bat oinarri ez dela.

- c) Lehenetsitako ezaugarriak (modalitatea, lurraldea, etab.) dituen plaza bateko ordezkotza esleituta, esleipenduna ez agertzea ezarritako epean uko egiteko arrazoiren bat egiaztatzeko agiririk aurkezteke.
- d) Zigortua izatea diziplina espediente bidez arau hauste larri edo oso larriagatik, kontuan izanda zehapenaren iraungitze epea.

Hamargarrena.- Deialdiari buruz

- 1.- Deialdi honi buruzko informazioa UPV/EHUko Deialdi eta Lehiaketen Atalean emango da, helbide honetan: Errektoregoko eraikina, 1. solairua, Leioako Campusa (Bizkaia).
- 2.- Hautagaiak eskariaren jarraipena egin ahal izango du, eskaria aurkezteko erabili zuen Langileen Atariaren bidez.
- 3.- Deialdi honen kontra aukerako berraztertze errekurtsioa aurkez dakioko UPV/EHUko errektoreari hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar daiteke zuzenean jurisdikzio horretako Bilboko epaitegian, bi hilabeteko epean, deialdi hau argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Leioa, 2022ko irailaren 26a

ERREKTOREA

Eskumenak eskuordetuta (Errektorearen 2022ko urtarrilaren 28ko Erabakia, 2022/02/12ko EHAA)

Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea

30628936C
FEDERICO RECART
(R: Q4818001B)

Firmado digitalmente por
30628936C FEDERICO
RECART (R: Q4818001B)
Fecha: 2022.09.26
11:46:58 +02'00'

Iz.: Federico Recart Barañano